

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala****Zenbait ordenantza indargabetzea eta aldatzea, hasierako onespena**

Urduñako ezohiko osoko bilkurak, 2020ko azaroaren 19an izandako lan-saioan honako hauek ezartzea onetsi zuen:

- A) Hainbat ordenantza eta araudiak behin-behinekoz indargabetzea:
1. Euskara ikasteko udal diru-laguntzal arautzen dituen ordenantza.
  2. Urduña udalerrerriko lurzoru urbanizaezinean familia bakarreko etxebizitza bat ezartzeko beharrezkoak diren baldintzak arautzen dituen Ordenantza.
  3. Los Milanos mendiko hondakindegian hondakin geldoak uzteko ordenantza.
  4. Jai batzordearen funtzionamendu-araudia.
  5. Kultur etxearen funtzionamendu-araudia.

B) Urduñako udalaren diru-laguntzak emateko oinarri orokorrak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onarpenaren aldatzea:

Ordenantza horien indargabetzea eta aldaketa, azkenean onartzen badira, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean osorik argitaratu eta hamabost egunera sartuko dira indarrean, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 eta 70.2 artikuluekin bat etorritik.

Behin-behineko ebazpen hau jendaurrean zabalduko da hogeita hamar (30) eguneko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta web orrialdean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, dagokion espedienteaz aztertzeko eta behar diren iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Horretarako, espedienteaz Udaletxeko Udal Bulegoetan egongo da ikusgai. Aipatutako epearen barruan erreklamaziorik aurkeztu ezean, adierazitako behin-behineko onespene-akordioa behin betikoa izango da, aipatutako 9/2005 Foru Arauaren xedatzen duen bezala.

Urduñan, 2020ko azaroaren 20an.—Alkatea, Itziar Biguri Ugarte